



18-44 urteko herritarren % 10,9k lehen etxebizitzan sartzeko beharra dauka Euskal Autonomia Erkidegoan

128.700 etxebizitzek dute birgaitze-lanen beharra, etxebizitza horien titularren esanetan, eta etxebizitza horiek etxebizitza nagusi guztien % 15,5 dira

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak kudeatutako 2008ko Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzaren beharrei eta eskariari buruzko inkestatik ondorioztatu da, halaber, EAEko etxekoen unitateen % 4,9k —40.900, gutxi gorabehera— etxebizitza aldatu behar duela; zazpitik batek baino pixka bat gehiagok (% 15,5), aldiz, zera adierazi du, bere etxebizitzak 3.000 euro baino gehiagoko aurrekontuko birgaitze-lanak behar dituela elementu propioetarako.

2008an, 18-44 urteko 74.500 herritarrek lehen etxebizitzan sartzeko eskaera egin dute Euskal Autonomia Erkidegoan, eta kopuru hori % 10,2 txikiagoa da joan den urtearen aldean. Hiru arrazoi nagusi daude 2006tik 2007ra bitarte neurtutakoaren —% 10,7— parekoa den murrizketa horren atzean: gazte kopurua jaitsi izana, joan den mendeko 80ko eta 90eko urteetako jaiotze-tasa txikiaren ondorioz; lehen etxebizitza batean sartu direnen gorakada; eta langabezia igo izana, eta, ondorioz, kasu askotan, diru-sarrerak murriztu edo desagertu izana. Etxebizitza batean sartzeko beharra zehazteko, diru-sarrera propioak edukitzea jarri da baldintza gisa.

Bizkaian eta Araban lehen etxebizitzaren eskaria % 15,7 eta % 11,5 jaitsi da, hurrenez hurren, 2007tik 2008ra bitarte. Gipuzkoan, aldiz, eutsi egin diote eskariari

Diru-sarrerak dituzten 18-44 urteko arabarrek 10.900 etxebizitza eskatu dituzte 2008an, 2007an baino 1.400 gutxiago. Bizkaitarrek, aldiz, 39.000 eskatu dituzte, hau da, 7.200 gutxiago, eta, azkenik, aipatzekoa da lehen etxebizitzaren beharra duten gipuzkoarrek 2007ko kopuruari eutsi diotela ia-ia 2008an: 24.400 etxebizitza eskatu dituzte guztira.

Lehen etxebizitza eskatu duten hirutik bik baino pixka bat gehiagok gurasotutoretzaren emantzipazioa aipatu dute arrazoi nagusizat —% 69,1—. Heren batek baino pixka bat gutxiagok —% 27,6—, aldiz, ezkontzeko edo bikotekidearekin bizitzeko bilatzen dute etxebizitza.




Lehen etxebizitza eskatu dutenen % 9,8k baino ez du alokairua hautatu

18-44 urte izaki lehen etxebizitza eskatzen dutenen ia % 60k jabetzan nahi du etxebizitza hori; % 9,8k, aldiz, alokairua nahiago du, eta % 30,6k ez du ez bata ez bestea lehenetsi.

Eskatzaile kopuru handiena 25-34 urtekoek osatzen badute ere —% 54,8—, eskatzaileen % 31,9k 18-24 urte ditu.

Behar den 1. etxebizitzaren ezaugarriak eta eskatzaileen profila.
Euskal Autonomia Erkidegoa. 2008. %



(*) % 100era iristeko falta dena "Ez daki-ez du erantzuten" atalari dagokio.

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Etxebizitzen beharrei eta eskariari buruzko inkesta



ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistikarako Organo Berezia

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

Azken urtean, etxebizitza aldatzeko beharra % 36,5 jaitsi da; birgaitzeko beharrak, aldiz, % 13,5 egin du gora

Etxekoen unitateen % 4,9k etxebizitza aldatzea pentsatu du (2007an baino % 36,5 gutxiago). Bestetik, etxebizitza birgaitzeko beharra nabarmen handitu da: Etxekoen unitateko 128.700 titularrek adierazi dute etxebizitzan 3.000 eurotik gorako aurrekontuko lanak egin beharko lituzketela, etxebizitzaren elementu propioetarako (2007an baino 13.500 etxekoen unitate gehiago).

ETXEBIZITZEN BEHARREI ETA ESKARIARI BURUZKO INKESTA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN		2008	Aldakuntza 2007. urtearen aldean	
			GUZTIRA	%
Euskal Autonomia Erkidegoa	Sartzea	74.461	-8.430	-10,2
	Aldatzea	40.894	-23.499	-36,5
	Birgaitzea	128.669	15.273	13,5
	Etxekoen unitateak	829.254	29.937	3,7
Araba	Sartzea	10.992	-1.432	-11,5
	Aldatzea	6.813	-746	-9,9
	Birgaitzea	18.231	4.274	30,6
	Etxekoen unitateak	118.832	5.073	4,5
Bizkaia	Sartzea	39.052	-7.247	-15,7
	Aldatzea	21.714	-12.541	-36,6
	Birgaitzea	71.544	8.363	13,2
	Etxekoen unitateak	445.197	15.481	3,6
Gipuzkoa	Sartzea	24.417	250	1,0
	Aldatzea	12.367	-10.216	-45,2
	Birgaitzea	38.893	2.630	7,3
	Etxekoen unitateak	265.225	9.383	3,7

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Etxebizitzen beharrei eta eskariari buruzko inkesta

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Zerbitzu Zuzendaritza. Berriazko Estatistika Organoa
Donostia kalea, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Harremanetarako: *Edurne Domingorena*

Tel. zk.: +34-945-01 97 12 Fax zk.: +34-945-01 64 07

Prentsa-oharrak Interneten: <http://www.gizaetxe.ejgv.euskadi.net/r40-2190/es/>

WEB HELBIDEA: <http://www.gizaetxe.ejgv.euskadi.net/r40-2190/es/>